ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2019ko otsailaren 27a, asteazkena • 25 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# ZAMBRANAKO UDALA

**Jendaurrean jartzea eta kobratzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2019ko zerga**

Iragarki hau argitaratzen denetik aurrera hamabost egunez egongo da jendaurrean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko errolda, interesdunek aztertu eta, egoki iritziz gero, erreklamazioak aurkez ditzaten.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko errolda dela-eta alegaziorik aurkezten ez bada, kobratzeko moduan jarriko da 2019ko martxoaren 15etik apirilaren 15era arteko egun baliodunetan, bi egun horiek barne. Era berean, zergadunei gogorarazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako berez eta besterik gabe betearazte aldia hasiko da. Horrek berarekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, 2/2005 Foru Arau Orokorrak, zergei buruzkoak, 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, baita premiamendu bidearen kostuak ere, hala badagokio.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Zambrana, 2019ko otsailaren 19a

*Alkate lehendakaria*
*AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.02.27 06:33:04 Z